

# BESTELAKO XEDAPENAK

## HEZKUNTZA SAILA

### 3985

*AGINDUA, 2022ko abuztuaren 31koa, Hezkuntzako sailburuarena, Oñatiko (Gipuzkoa) CPEIPS «Txantxiku Ikastola» HLBHIP Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako Ikastetxe Pribatuaren baimena aldatzeko dena.*

Oñatiko «Txantxiku» Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako Ikastetxe Pribatuaren entitate titularraren ordezkariak hasarazitako espedienteaz aztertu da, zeinaren bidez Bigarren Hezkuntzako unitate bat gehitzeko eta Haur Hezkuntzako bigarren zikloko unitate bat kentzeko baimena eskatzen duen.

Espediente hori ezarritako prozeduraren arabera izapidetu da, indarreko arauak eskatzen dituzten agiriak erantsi zaizkio, eta arlo horretan eskumena duten erakundeek horri buruzko txostena eman dute.

Arau hauek izan dira kontuan: 332/1992 Errege Dekretua, apirilaren 3koa, ikastetxe pribatuetan unibertsitateaz kanpoko araubide orokorreko irakaskuntzak emateko baimenei buruzkoa (apirilaren 9ko BOE); 131/2010 Errege Dekretua, otsailaren 12koa (martxoaren 12ko BOE) apirilaren 3ko 332/1992 Errege Dekretua aldatzen duena; otsailaren 12ko 132/2010 Errege Dekretua, Haur Hezkuntzako bigarren zikloko, Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako irakaskuntzak ematen dituzten ikastetxeek bete behar dituzten derrigorrezko baldintzak ezartzen dituen (martxoaren 12ko BOE), eta gai horretan aplikatu beharreko gainerako legeak. Horiek horrela, honako hau

#### EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– 2022-2023 ikasturtetik aurrera, ondoren zehazten den ikastetxe pribatuari baimena ematen zaio Bigarren Hezkuntzako unitate bat gehitzeko eta Haur Hezkuntzako bigarren zikloko unitate bat kentzeko:

Kode-zenbakia: 012349 eta 20002979.

Izen generikoa; Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako Ikastetxe Pribatua.

Izen espezifikoa: «Txantxiku Ikastola».

Titularra: Txantxiku Ikastola Sociedad Cooperativa.

Helbidea: San Juan Kalea 1 / Foruen Enparantza 4.

Udalerrria: Oñati.

Lurralde Historikoa: Gipuzkoa.

Baimena: Bigarren Hezkuntzako unitate bat gehitu eta Haur Hezkuntzako bigarren zikloko unitate bat kendu.

Ikastetxearen osaera:

– Haur Hezkuntzako 1. zikloa:

- 0-1 urte bitarteko gela: 3 unitate, bakoitza 8 ikaspostuko edukierarekin.
- 1-2 urte bitarteko gela: 3 unitate, bakoitza 13 ikaspostuko edukierarekin.
- 2-3 urte bitarteko gela: 4 unitate, bakoitza 18 ikaspostuko edukierarekin.

- Haur Hezkuntzako 2. zikloa: 8 unitate, 200 ikaspostuko edukierarekin.
- Lehen Hezkuntza: 17 unitate, 425 ikaspostuko edukierarekin.
- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza: 11 unitate, 330 ikaspostuko edukierarekin.
- Batxilergoa: 4 unitate, 140 ikaspostuko edukierarekin.
- Hezkuntza Berezia: 2 gela ireki.

2. artikulua.– Indarrean dagoen araudia betetzera behartuta dago ikastetxea, agindu honen bidez baimendutako unitateetako irakasleen titulazioari eta hizkuntza-eskakizunari dagokienez. Bestela, bidezkoa litzateke emandako baimena baliogabetzea.

3. artikulua.– Ikastetxeak martxoaren 17ko 314/2006 Errege Dekretuaren bidez onartutako Eraikuntzako Kode Teknikoa bete beharko du, bai eta indarreko legeriak ezartzen dituen higie-, osasun-, akustika-, bizigarritasun-, segurtasun- eta irisgarritasun-baldintzak ere. Ikastetxearen titularraren erantzukizuna izango da baldintza horiek betetzea.

#### AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Agindu honetan dagoen baimen-emateak ez du esan nahi hezkuntza-itunen araubidearen bitartez laguntzarik lortuko denik.

#### AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Agindu honen kontra aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioko Hezkuntzako sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko abuztuaren 31.

Hezkuntzako sailburua,  
JOKIN BILDARRATZ SORRON.